errigora

errigora.eus

**urriak 23 - azaroak 13**

# Ezinbestekoak

## euskararentzat Agerrean




agerraldia
euskara plazara

aek

IKASTOLAK

Sortzen




# Euskarari puzka

Errigoran bi kanpaina nagusi egiten ditugu urtero. Udaberrian *Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura*: bertako oliba-olio birjina estra eta kontserba-sortak Euskal Herri osoko etxeetara banatzen ditugu bertako ekoizpena eta ekonomia sustatuz.

Udazkenean, aurtengoan urriaren 23tik azaroaren 13ra, *Agerreko uzta euskarari puzka*: **Nafarroa hegoalde eta erdialdeko produktuz osatutako saskiak milaka etxetara eramaten ditugu, eta, auzolanari esker, bertako euskalgintzari ekarpen-ekonomiko garrantzitsua egiten zaio (saski bakoitzaren balioaren %25)**. Ekarpen hori ezinbestekoa da zonaldeko ikastolentzat eta AEK-ren euskaltegientzat, baita sare publikoan D eredua sustatzeko dinamikentzat ere. Gainera, Agerraldia mugimenduaren iturburu eta sustengu ere bada; zonaldean euskararen ezagutza eta erabilera bultzatzeko eta bere aldeko jarrerak indartzeko lan egiteko baliabideak eskaintzen dizkio.

## La campaña

Del 23 de octubre al 13 de noviembre se pueden pedir cestas con productos de la huerta navarra. El 25% de su valor se destinará a ayudar al euskera en el sur y la zona media de Nafarroa.

## Campagne

Du 23 octobre au 13 novembre on peut commander des paniers composés de produits navarrais. 25% de leur valeur sera affectée au soutien de la langue basque en Navarre.

# Ezinbestekoak

Ager zonaldean (Nafarroa erdi eta hegoaldean) lanean ari diren euskalgintzako eragileak (AEK, Sortzen, Ikastolak eta Agerraldia) ezinbestekoak dira euskararentzat. Euskarak zonaldean arnasa har dezan bertatik eta bertarako egiten dute lan. Zuhaitz bat balira bezala hizkuntza sustraitzeko lanetan ari dira, baina baita bertako euskaldunek arnasa har dezaten aire kutsatua garbi bilakatzen ere. Udaberriro-udaberriro loratzen dira, hizkuntza ez dadin zimeldu.

Zuhaitzak lanean jarrai dezan, ezinbestekoak garenak gainontzeko lurraldetako euskalzaleok gara. Haize eta euriaren kontra jarduten duten horiei goxotasuna eta maitasuna bidaltzeko aukera bat dugu Euskarari Puzka kanpaina. Zaindu dezagun Ager zonaldeko euskalgintza!

## Imprescindibles

AEK, Sortzen, Ikastolas y Agerraldia son imprescindibles para el euskera en la zona Ager. Trabajan por y para la zona sur y media de Nafarroa para que el euskera respire.

El resto de los euskalzales también somos imprescindibles para que sigan luchando. ¡Cuidémosles!

## Essentiel

AEK, Sortzen, Ikastolas et Agerraldia sont essentiel pour le basque dans la région d'Ager. Ils travaillent á la région méridionale et centrale de Nafarroa afin que l'euskera respire.

Le reste du peuple euskalzale est également essentiel pour qu'ils continuent à se battre. Occupons-en !



# Beltza 60€




## Olioa · Piperrak · Zainzuriak · Orburuak · Kardua · Potxak Borraja · Teilak · Mahats zukua · Ardo beltza · Ilarrak Patxaran mantekatuak

Aceite · Pimientos · Espárragos · Alcachofas Cardo · Pochas · Borraja · Tejas · Guisantes Zumo de uva · Vino tinto · Mantecados de pacharan

Huile · Poivrons · Asperges · Artichauts Chardon · Pochas · Bourrache · Tuiles Petits pois · Jus de raisin · Vin rouge · Mantecados de pacharan

# eko Berdea 65€

## Piperrak · Olioa · Zainzuriak · Orburuak · Txitxirioak Pasta · Tomatea · Teilak · Txokopipitak · Sagar zukua Ozpina · Ardo beltza erdi-ondua

Pimientos · Aceite · Espárragos · Alcachofas Garbanzos · Pasta · Tomate · Tejas · Galletas con chocolate · Zumo de manzana · Vinagre Vino tinto semicrianza

Poivrons · Huile · Asperges · Artichauts Pois chiches · Pâtes · Tomate · Tuiles Biscuits au chocolat · Jus de pomme Vinaigre · Vin rouge demi-affiné



# Gorria 75€




## Ardo beltza (18 hil barrikan) · Ardo txuria · Olioa · Piperrak Zainzuriak · Turroia · Mantekadak · Polboroiak · Ardi-gazta Txokolatezko molineritoak · Patxarana

Vino tinto (18 meses en barrica) · Vino blanco Aceite · Pimientos · Espárragos · Turrón Mantecados · Polvorones · Queso de oveja Molineritos de chocolate · Pacharán

Vin rouge (18 mois en barrique) · Vin blanc Huile · Poivrons · Asperges · Nougat de Mantecados · Polvorones · Fromage de brebis · Molineritos au chocolat · Pacharan

# Eskatu saskiak urriaren 23tik azaroaren 13ra

## del 23 de octubre al 13 de noviembre | du 23 octobre au 13 novembre

Eskaera *online* egiteko arazorik bazenu, inprimaki hau bete eta zure auzo edo herriko arduradunari eman.

Si tienes problemas para realizar la solicitud *online*, puedes rellenar este formulario y entregarlo a quien corresponda.

Si vous rencontrez des problèmes lors de votre commande en ligne, vous pouvez remplir ce formulaire et le livrer en main propre.

**Izena** Nombre *Nom*

**Abizena** Apellido *Nom de famille*

**Herrialdea**

Behe Nafarroa ☐ Bizkaia ☐ Gipuzkoa ☐ Lapurdi ☐ Nafarroa ☐ Zuberoa ☐

**Herria** Localidad *Ville*

**Telefonoa**

**Gunea**

**E-mail**

**Eskaera (saski kopurua zehaztu)** Pedido *Commande*

**Saski beltza (60€)** ☐☐ **Saski berdea (65€)** ☐☐ **Saski gorria (75€)** ☐☐

Datu Pertsonalen Babesari buruzko indarreko Lege eta Araudiak betez, ERRIGORA ERRIBERA ELKARTEA-k zure datuak gordeko dituela jakinarazten dizugu, gure zerbitzu eta produktuak kudeatu eta emateko helburuz, lege-betebeharrek agintzen duten epeetan. Zure datu pertsonalen trataera hau gure jarduera burutzeko ezinbesteko beharrean oinarritzen dugu. Datuok ez zaizkio beste inori utziko, zerbitzua eskaintzea ahalbidetzen duten bitartekari-boluntarioei izan ezik, edota lege-betebeharrei erantzuteko. Zure datuak ikusteko, zuzentzeko edo ezabatzeko eskubidea gauzatzeko info@errigora.eus helbidera idatzi edo, posta arruntez, Berriainz industrialgunea, E kalea 146 zenbakia, 31195 (Berriobeiti) helbidera.

Inprimaki honetako emaila eremua betez, gure jarduerarekin lotutako produktu eta zerbitzuen inguruko informazioa jasotzeko baimena ematen diguzu. Datuen Babeserako informazio gehigarri eta zehatza: https://www.errigora.eus/pribatutasun-politika

***Nafarroa hegoalde eta erdialdeko euskalgintzari behar duen haize bolada bidali diezaiogun denon artean puzka!***

***Eskatu Ager eremuko produktuz osatutako saskiak. Bildutakoaren %25 bertako euskalgintzara bideratuko da.***

*Pide cestas de productos del sur y la zona media de Nafarroa y ayuda al euskara con el 25% de su valor.*

*Commandez des paniers de produits provenant de la zone centrale et zone du sud de la Navarre et soutenez l'euskera grâce aux 25% de leur valeur.*

**errigora.eus**